

Jaialdia  
LITERAKTUM



**DK**

**memoria**  
**2019**



**L**iteraktumek ikus-entzule asko erakartzea lortu zuen azken edizioan, **4.200 lagun**, eta goraldiari eutsi zion. Jaialdiak urratsak eginez jarraitzen du letren inguruko jaialdien artean erreferentziako hitzordu bihurtzeko helburuaren atzetik.

2019an, jaialdiaren ardatz nagusia **literaturaren eta feminismoaren arteko harremanak** izan ziren, eta emakumeak izan ziren gonbidaturiko autore gehienak. **Cristina Morales (Espainiako Narratiba Saria** jaso du berriki), **Karmele Jaio, Elvira Sastre, Eider Rodriguez, María Sánchez, Laura Freixas, Mariasun Landa, Christina Rosenvinge, Paula Bonet, Espido Freire, Lucía Baskaran, Marta Sanz, Arantxa Urretabizkaia** (azken Anton Abbadia sariduna) izan ziren, besteak beste, solasaldietan.

Gai hori dela eta, edizioaren beste datu esanguratsu bat izan da jendeak aretoak bete zituela zenbait ekitalditan, eta batez ere emakumeak eta gazteak izan zirela.

Azken edizioak, gainera, izan zituen beste protagonista handi batzuk ere, hala nola **Bernardo Atxaga**, zeinak bere azken eleberria izango omen dena aurkeztu baitzuen, *Etxeak eta hilobiak*, noiz eta Espainiako **Letren Sari Nazionala** eman zioten egunean bertan.

**Ramon Saizarbitoria** donostiarrak, eta zehazki *Egunero hasten delako* eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenak, beren leku berezia izan zuten. Iratxe Retolazak, Itxaro Bordak eta Lourdes Oñederrak lan hori aztertu zuten zuzeneko irratsaio batean, DK Irratiaren Bestalde programan alegia, zeina Klub Aretoan egin baitzen, Maite

Larburuk eta Harkaitz Canok Ion Olanorekin batera elkarrizketa poetiko-musikalean jardun aurretik.

**Adam Zagajewskik** ere, **2017ko Letren Asturiasko Printzesa Saria**k, parte hartu zuen programan, eta **Ramón Andrés** idazle eta saiogilearekin batera, bere obraz jardun zuen, abiapuntutzat hartuta gaur egun poesiak duen lekuaz eta europar proiektuaren etorkizunaz.

**Angel Errok** eta **Iñigo Astizek**, bestalde, poesian edo prosan pentsatzearen antzak eta aldeak jorratu zituzten UPV-EHUK antolaturiko *Pentsatu!* Jardunaldietan, zeinak aurten ere Literaktumen programan sartu baitira. Unibertsitatearen eta Literaktumen artean antolatutako beste jarduera batzuk pentsamendua eta feminismoari buruzko mikro-eztabaidak izan ziren, Kutxa Kultur gunean.

Txikienek ere badute beren lekua jaialdian. *Literaktum Txikia* 16 urtetik beherakoentzako programa da, eta agenda betea du: antzerkia, ipuin-kontalariak, musika eta lantegiak, non ikus-entzule asko izan baitziren denetan ere. Atal hori haziz doa urtetik urtera, hala ikus-entzuleen nola asmoen aldetik.

Eta, amaitzeko, Literaktumek literatura-afari arrakastatsua eskaini zuen, oraingoan Charles Dickensen omenez.

2019a urte ederra izan zen Literaktumentzat, eta Donostia Kultura ez zen bakarrik izan arrakastan. Gipuzkoako Aldundiko Kultura Departamentuak, Euskadiko Filmategiak, Gipuzkoako Liburuzainen Elkarteak, Etxepare Institutuak, Poloniako Kultura

Institutuak eta Feministaldiak bat egin zuten harekin letren artearen ospakizun honetan.

Laburbilduz, **Literaktumek** literaturaren jai handia utzi zuen atzean, Donostia ia bi astez *hitzen hiria* bihurtu baitzuen. Jaialdiak zenbait podcast utzi dizkigu jardueraz; hementxe daude ikusgai: <https://irratia.donostiakultura.eus/es/>.



María Sánchez